

# SARRERA

Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak liburuxka hau eskeintzen dizu bertsozale zaren horri, aurtengo BERTSOLARI EGUNAren osagarri bezala. Urtero bertsolari bat omenduz ospatzen den egunari zénbait aldaketa eta berrikuntza sartzea pentsatu zuen Bertsolari Elkarteak, BERTSOLARI EGUNA finkatuz.

BERTSOLARI EGUNA, urtean behin bertsozale eta bertsolariak elkartu dituen jaia da, bertsolaritzaren inguruan dabilen jendea egun batez bederen elkarturik egoteko ospakizuna. Bestaldetik ez da omenaldi zentzua galdu nahi, bertsolari edo bertsolaritzaren bultzatzaile bat omentzea urtero biltzeko arrazoirik onena dela pentsatuz. Horrela, omenaldiko bertso saioaz gain eguna girotuko duten beste hainbat ekitaldiz zabaldurik dago BERTSOLARI EGUNA.

Berrikuntza honen erakusgarri duzu eskuetan daukazun liburuxka hau. Lehenengo zatian orain arteko omenaldia historia bat egiten da, hainbat bertsolarik jaso duen herri bertsozalearen eskerronaren lekuko. Bigarren zatian aurtengo omenduari buruzko orrialdeak aurkituko dituzu: LEXOTI bertsolariaren biografia laburra, bere pasadizoak, bertsolari bezala eman duena, lagunek berari buruz diotena eta bere azken bertso mordoxka dira bertsolari oiartzuarraren izatea isladatzeko bildu ditugunak. Guzti honekin, liburuxka irakurterreza egin nahi izan da, atsegin izango duzun esperoan.

## EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI ELKARTEA

Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak

Babesle: **Oiartzungo Udala**

Laguntzaile: **Oiartzungo Aurrezki Kutxa Munizipala**

**LAXARO AZKUNE**

Egileak: **IÑAKI ARBELAIZ**  
**ANTTON KAZABON**

Azala: **Rafael Labandibar**

Inprimatzaile: **Antza**

Argazkiak: **Rafael Labandibar**

## BERTSOLARI EGUNA - 1.968-88

### J.L. LEKUONA - «LEXOTI» -

EGILEAK: Laxaro Azkune  
Iñaki Arbelaiz  
Antton Kazabon

Argazkiak: Rafael Labandibar

# EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI ELKARTEA

## **BERTSOLARIEN OMENALDIAK / BERTSOLARI EGUNA (1.968-88)**

### **HISTORIA:**

Donostiako Udalaren CAT/KTE zerbitzuaren buru Jose Salaberria zela hasi ziren BERTSOLARIEN OMENALDIAK.

Eguna San Sebastian jaien barruan zen eta aurrenengoa 68ko Urtarrilaren 21ean izan zen.

Aurrenengo omendua, orduan txapeldun zen MANUEL OLAIZOLA «UZTAPIDE» izan zen.

Lekua, hasieratik eta aurrenengo sei saiotan, Astoria Antzokia izan zen. Ondorengo lau omenalditan, (76-79) Carmelo Balda Pilotalekuan bildu ziren. 81-82 Anoeta Pilotalekuan izan ziren. 83koa Baldan berriro eta gainerakoak Astorian berriz ere, 86an Victoria Eugenia izan zena ezik.

Hasieran, omendua aukeratzeko sistema, omenaldira bildutako entzuleen botoz erabaki zen, sarrera txarteletan jartzen zuten hurrengo urteko omenduaren izena. Omenduaren izena bazkalondoan jakinerazten zen eta berori bihurtzen zen bertsotarako aitzaki berri. Horrela aukeratuak izan ziren:

1.969an Fernando Aire XALBADOR; 1.970erako Manuel LASARTE, honen omena 1.971. urtean ospatu bazen ere, 70ean «Estado de excepción» zegoelako ezina izan baitzen. 1.972an MATTIN Treku; 1.973an Iñaki Eizmendi «BASARRI»; 1.974ean Balentin ENBEITA; 1.975ean Pedro Ortuzar «ITURRI»; 1.976an Jose Migel Iztueta LAZKAO TXIKI; 1.977an Jose LIZASO; 1.978an Jose Joakin MITXELENA; eta 1.979an Jose AGIRRE «ORANDA».

Omenaldi hauek zeramaten martxan oso gazterik omentzera zetozen bertsolariak eta hori ez zen oso begi onez ikusten bertsolarien aldetik. 1.979ko entzuleen botoek Imanol LAZKANO atera zuten hurrengo urteko omendua izateko, honek ez zuen ordea onartu 43 urterekin omenaldirik eta horrela antolatzaileek bigarren botorik gehien zuen ETXAUN IRURIKOn izena zabaldu zuten, 1.980. urteko omendu bezala. Etxahun bere omenaldi eguna baino lehen hil zen. Entzuleek aukeratzeko modurik ez zegoen eta zerbait egin beharra zegoen. Urte horretan eta urte hasieran 1.980ko txapelketaren azken saioa jokatu zen Donostian. Urte horretan omenaldirik ez egitea erabaki zuten, honekin nahiko zelakoan.

Bertsolariak hasirik zeuden bilerak egiten eta batzorde bat ere bazuten. Batzorde horietan erabaki zen handik aurrerako omenaldiak bertsolarien artean aukeratuz egitea. Ez zen bidezko bertsolari gazteak omentzea, bertsolari izandako eta erretiratutako bertsolariez jendea ahazten zen bitartean. Horrela, batzorde honek 1.981 erako Paulo Zubiarrain «PAULO TXIKIA» eta Antonio Mari Eizmendi LOIDI SALETXE proposatu zituen eta horrela omendu ziren.

Urte horretararte OMENALDIA bazen ere hitza, hortik aurrera, BERTSOLARI EGUNA deitzen zaio, omendua izanik ere egunaren ardatza.

Gai-jartze lanak ere hasieran Basarrik eta gerora Jose Mari Iriondok eginak izan ziren baina urte honetan hasten dira Bertsolarien Batzordekoak ere parte hartzen. Horrela, urte horretan, Jose Mari Iriondok eta Sebastian Lizaso egin zuten lan hori. Aurrerantzean bertsolariek egingo dute lan hori, Sebastian Lizaso eta Iñaki Muruak, Millan Telleria eta Mikel Mendizabalek ere urteren batetan, baina azken hauetan Iñaki Murua eta Xabier Euskitzek egiten dute.

Omendua jaialdiaren aurretik erabakia izan arren ez da jaialdi amaiera arte zabaltzen. Omenduaren agurren ondoren, hurrengo urtekoaren agurrak ere izango dira. Era honetan omendu dira:

1.982an Jon MUGARTEGI; 1.983an Manuel Sein XANPUN; 1.984ean Txomin GARMENDIA; 1.985ean Jesus Alberdi EGILEOR; 1986an Patxi ETXEBERRIA; eta Jon AZPILLAGA 1.987an.

1986ko Txapelketa Nagusiaren ondoren **Bertsolarien Elkarte** bat ere sortzen da eta horrek Bertsolari egun baino Omenaldi gehiago ziren egun hauek, benetako BERTSOLARI EGUN baten esanahiz, hornitu nahi lituzke. BERTSOLARI EGUNA jartzen da programetan. Egun honen inguruan beste zenbait ekintza ere antolatzen asmoak daude aurrerantz. Omendua, bertsolaria edo bertsozalea izan daiteke, hau da Bertsolaritzaren alde lan egin duen edonor. Omenduak Euskal Herriko Zuzendaritza Batzordeak aukeratuko ditu aurrez egin diren proposamenen artean. Erabaki hauek 1.989. urtetik aurrera beteko dira. 1.988koa aurreko urteetan bezala egiten da eta omenduak Bautista eta Xalbador MADARIAGA izaten dira. Eta 1.989rako aukeraketa ere lege zaharrear egiten da, Batzarrak LEXOTI oiartzuarra aukeratzen duelarik.

Jaialdi hauek, haseratik bertatik, ondoren, lagunarteko bazkari bat izan dute beti, bertsolari, bertsozale eta omenduaren senitartekoz osatua. Bazkaltiarrez gain bazen eta bada bazkalondoko giro horretaz gozatu asmoz biltzen denik. Hasera hartan, hurrengo omendua zein izango zen jakitearren ere bai.

Bazkari tokiak honako hauek izan dira:

Zazpi bat urtetan edo URBIA JATETXEA eta BUENA VISTA beste seitan. Hauez gain, LA SALLE IKASTETXEA, UDALETXE AZPIA, BELODROMOA, ANOETA PILOTALEKUA, HIRU ELKARTETAN eta HOTEL COSTA VASCAAn.

Erregalien artean omenduak Bertsolarien erregali bat ere hartu izan du beti, 88an izan ezik, hor Elkarteak eman baitio. Erregali hori Omenaldiko egunean kantatzen zuten bertsolari guztiek emandako diruz egina izaten zen.

Bazkalondoa bertso ugariz apaindu ohi da, bildutakoek omenduari eta gero honek eskerrak emanez kantatu ohi dituzenez. Amaiera hala ere trikiti soinu eta dantza, festa giroan ematen zaio.

## **OMENALDIAK ETA OMENDUEN DATUAK**

### **1. - MANUEL OLAIZOLA «UZTAPIDE».**

1.909-V-10ean jaio, Endoiako «Uztapide» baserrian. Zestoa.

1.952-V-10ean Oiartzunen ezkondua.

1.983-VI-8an hil zen.

**OMENALDIA:** 1.968-I-21 ean Astoria Antzokian. Garaiko bertsolari onenek kantatu zuten bere omenaldian.

### **MANUEL OLAIZOLA «UZTAPIDE»:**

- Txapelketa Nagusia: 1.936an 2.; 1.960an 2.; 1.962-65-67etan 1.
- Gipuzkoako Txapelketa: 1.959an
- 1.968ko sariketan: 4. postuan.

DONOSTIAN 2. omenaldia egin zitzaion Uztapideri. Bera erdi gaixo eta ez zuen joaterik izan. Nolanahi ere bertso batzuk bidali zituen.

Kantu lanean hasiak ginan  
asko bezela gazterik,  
ez nuan uste nere burua  
era hontan ikusterik;  
nere denboran ez det pasatu  
holako egun tristerik,  
orain ez daukat ari diranai  
eskerrak eman besterik.

### **2. - FERNANDO AIRE «XALBADOR».**

1.920-VI-19an jaio, Urepelgo «Xalbador» baserrian.  
1.976-XI-7án hil zen bere omenaldi egunean Urepelen, Leoni  
Etxebarre bere emaztearen eskuetan.

**OMENALDIA:** 1.969-IX-21 ean, Astoria Antzokian.

**Bertsolariak:** Uztapide, Mitxelena, Lasarte, Arozamena, Lazkao Txiki, Mattin, Lazkano,  
Garmendia, J. Lizaso eta Gorrotxategi.

### **FERNANDO AIRE «XALBADOR»**

- Txapelketa Nagusian: 1.960an 4.; 1.962an 3.; 1.965ean 3.;  
1.967an 2.; 1.968ko Sariketan 2.
- Xenpelar Sariko bertso idatzietan: 1 .972-73-75-76ko sariak.

### **ODOLAREN MINTZOA liburutik**

#### **«GIPUZKOA MAITEA»**

O Donostia eta  
zure ingurua  
zu gabe zer zitaiken  
enetzat mundua?  
iduri zaut artean  
nintzela galdua  
eta zutan aurkitu  
neronen burua.

### **3. - MANUEL LASARTE ARRIBILLAGA.**

1.927-XII-16an jaio, Leitzako «Franki» baserrian.  
12 urterekin Aiara etorri eta Orion bizi da bere familiarekin.

**OMENALDIA:** 1.971-III-19an, Astoria Antzokian.

**Bertsolariak:** J. Lizaso, Lazkao Txiki, Uztapide, Mattin, Xalbador, Arozamena, Lazkano, Basarri,  
Gorrotxategi.

### **MANUEL LASARTE:**

- 1.968ko Sariketan 3. postua.

### **Omenaldi egunean kantatutako bertsoa:**

Maite zaituztet anai arrebak  
ez det beste zer esanik,  
hainbeste jende nola bildu dan  
ni ezerez bat izanik.  
Zuen morrontzan jarraitu nahi det  
gaur ematen det hitza nik,  
ez nuen uste Euskal Herrian  
holain maltea nintzanik

### **4. - MATTIN TREKU.**

1.916-XI-11an jaio, Ahetzeko Harrieta baserrian. 1.940an herri bereko Mulienea baserrira joan zen bizitzera.  
1.947an Mari Olandegirekin ezkondua.  
1.981eko uztailaren 22an hil zen.

**OMENALDIA:** 1.972-I-16an Astoria Antzokian, bozgorailuak kanpora jarri zituzten jendea barruan kabitzen ez zelako.

**Bertsolariak:** Uztapide, Lasarte, Xalbador, Lazkano, Agirre, Lizaso, Arozamena, Garmendia, Azpillaga, Lopategi, Gorrotxategi, Lazkao Txiki eta J. Lizaso.

### **MATTIN TREKU:**

- Txapelketa Nagusian: 1.960an 5.; 1.962an 7.; 1.965ean 5.; 1.967an 8.
- Iparraldeko txapelketa: 1.947-52ko txapelak
- 1.968ko Sariketan 6.

### **Omenaldi egunean kantatua:**

Egun guztiez ez da ikusten  
holako edertasuna  
hau ikusita gogoratzen zait  
gauza bat leno entzuna  
munduko gauzik onenak dira  
dirua eta osasuna  
nik hoiiek baino gorago daukat  
lagunen maitetasuna.

### **5. - IÑAKI EIZMENDI «BASARRI».**

1.913-XI-27an Errezilgo «Granada» baserrian jaio.  
Zazpi urte zituela Zarautza joan bizitzera bere familiarekin.  
1.945. urtean Maria Aginagalderekin ezkondua.

**OMENALDIA:** 1.973-I-21 ean Astoria Antzokian.

**Bertsolariak:** J. Lizaso, Egileor, Lasarte, Xalbador, Garmendia, Gorrotxategi, Mattin, Uztapide, Mugartegi, Lazkano, Arozamena, Etxeberria, Agirre, Igarzabal eta Mitxelena.

### **IÑAKI EIZMENDI «BASARRI»**

- Txapelketa Nagusian: 1.935ean 1.; 1.960an 1.; 1.962an 2.
- Gipuzkoako txapelketa: 1.945ean
- Iparraldeko txapelketa: 1.949-50-51-54
- 1.968ko Sariketan 1.

### **Omenaldi egunean kantatua**

Anai-arrebok, zer portamena  
izan dezuten nerekin!  
Hainbeste maite ninduzutenik  
gaur arteraino ez nekin.  
Gure Donosti berdingabea  
egiazko euskal jardina  
usaintsu dago, bada danetik  
lirio, arros, krabelin.  
Ai! giro honi eutsi zaiogun  
ez dezala aldegin,  
gaxorik dagon gure hizkuntza  
lehenbailehen sendatu dedin.  
Ez dakit nola eskerrak eman  
ez dakit nola hitzegin.  
Nik gauza gutxi merezi nuen  
eta zuek asko egin.

## 6. - BALENTIN ENBEITA

1.906-V-20an Muxikako Usparitxa-Jauregi baserrian jaioa.

1.935ean Zabala-Ormaetxea baserrira ezkondu zen.

1.986-XI-20an hil zen.

**OMENALDIA:** 1.974-II-3an Astoria Antzokian.

**Bertsolariak:** Mugartegi, Lazkano, Mattin, Lazkao Txiki, Garmendia, Agirre, Arregi, Arozamena, Mitxelena, J. Lizaso, Lasarte, Xalbador, Igarzabal, Gorrotxategi, Egileor, Etxeberria eta Abel Enbeitia.

### BALENTIN ENBEITA.

- Bizkaiko Txapelketa: 1.958-59ko txapelak.

### Bere omenaldi egunean kantatua:

Bertsolaritzan garaitza dala  
dirudi gaurko batzarrak  
Halan diñube heldu iakuzan  
telegramaren izparrak.  
Gaur Donostian ikusten ditut  
haraitzen zazpi adarrak,  
bertso kantuan pozez jolasten  
bere orri ta ezkurak.  
Bidasoz handik Benabarrakin  
Xubero, Laburditarrak,  
urez hemendik Bizkai, Gipuzko  
Araba eta Naparrak.  
Bertsolari bat omendu guran  
heldu diran euzkotarrak,  
hainbestekorik etzun merezi  
kantuban dagon txindorrek.  
Guztiaugaitik anaitarreboi  
danoi bihotzez eskarrek.

## 7. - PEDRO ORTUZAR «ITURRI».

1.932-IV-25ean jaio. MUXIKA-AREATZAko «Iturri» baserrian Gernikan bizi da, Pilar Arrizubietarekin ezkondua.

**OMENALDIA:** 1.975-II-16an As toria Antzokian.

**Bertsolariak:** Balentin, Jon eta Abel Enbeitia, K. Lizaso, Lasarte, Azpillaga, Lazkao Txiki, Mattin, Arozamena, Lazkano, Agirre, Lopategi, J. Lizaso, Gorrotxategi, Larrañaga, Garmendia, Mitxelena, Egileor, Arregi, Igarzabal, Etxeberria.

### Joxe Lizasoren Omenaldi egunean kantatutako bertsoa

Hainbat urtean Euskal Herrian  
kantatua zaude gozo,  
gizon umil ta bihotz zabalez  
hainbat behar zuben jaso,  
agurtzen ditut zure semeak,  
emazte eta guraso;  
neu eta neure familigandik zorionak har Lizaso.

## 8. - JOSE MIGUEL IZTUETA «LAZKAO TXIKI»

1.926-IX-15ean jaio Lazkaomendiko «Abalei» baserrian, Lazkaon. Ezkondu gabea oraindik.

**OMENALDIA:** 1.976-I-25ean, Carmelo Baldan.

**Bertsolariak:** Haseran 30 bat bertsolarien agurrak: Lasarte, Lazkano, Basarri, Gorrotxategi, Mattin...

**Saioa:** Azpillaga, Arozamena, Lopategi, Igarzabal, Xalbador, Agirre, J. Lizaso eta Mitxelena.

### **JOSE MIGUEL IZTUETA «LAZKAO TXIKI»**

- Txapelketa Nagusia: 1.962an 4.; 1.965ean 2.; 1.967an 4.
- Gipuzkoako Txapelketa: 1.964ean.
- Ordiziako Saria: 1.959an 2.

### **Bere omenaldi egunean kantatutakoa:**

Lehengo saioa nere bertsoak  
ezin lezake edertu  
Baina taupaka daukaten honek  
zerbait nahi luke agertu.  
Zoriona ta negarrik ez det  
ikusi gaur bezin gertu.  
Orduan ere bihotz ilunak  
nahi zinduzteke eskertu.

### **9. - JOXE LIZASO MENDIZABAL.**

1.927-III-10ean jaio, Azpeitiko Enparan kalean.

Oso gazterik Txillaramendi bailarako Salaberri baserrira joan zen sasoiu arte.

1.957-IV-27an Juli Iraolarekin ezkondua.

**OMENALDIA:** 1.977an Carmelo Baldan. Zeharo bete zen. 3.500 lagun.

**Bertsolariak:** Basarri, Balentin, Jon eta Abel Enbeita, Lasarte, Lopategi, Azpillaga, Lazkao Txiki, Mattin, Joxe Agirre, Gorrotxategi eta Mitxelena.

### **Bere omenaldi egunean kantatua:**

Lendabiziko nere burua  
nahi nuke zerbait aztertu  
Nik herrian zer egin ote det  
gozatu edo aspertu  
bainan halare poz bat dadukat  
enazutela baztertu.  
Oraindik ere gizon nitzake  
baneki nola eskertu.

### **10. - JOSE JOAKIN MITXELENA.**

1.924-VII-20an jaio Oiartzungo herrian eta bertan hil da 1988ko Abenduaren 3an.

**OMENALDIA:** 1.978-I-28an Carmelo Baldan.

**Bertsolariak:** Haseran bertsolari mordo baten agurrak.

**Saioa:** Mattin, Lazkao Txiki, Agirre, Gorrotxategi, Azpillaga, Igartzabal, Lopategi, Kosme Lizaso.

### **JOSE JOAKIN MITXELENA**

- Txapelketa Nagusian: 1.960an 6.; 1.962an 5.; 1.965ean 4.
- Gipuzkoako Txapelketa: 1.962ko txapela
- 1.968ko Sariketan 7. postua

## Omenaldi egunean kantatutako bertsoa:

Gaur Donostira inguratua  
jaunak ez nago damuan  
zer edo zer eingo zenduten  
errezeloa banuan  
anai ta arreba neunei begira  
asko daduzkat albuan  
txalo ta gaiñuntzeko eskeini  
nazuten erregaluan  
piskabat ondo zegoan baiñon  
hainbat merezi al nuan ?.

## 11. - JOXE AGIRRE «ORANDA»

1.929-IV-13an jaio Azpeitiko Oranda-beheko baserrian.

1964-I-25ean M<sup>a</sup> Luisa Odriozolarekin ezkondua, Oranda-beheko baserrian bizi da.

**OMENALDIA:** 1.979-II-1 1 an Carmelo Baldan.

**Bertsolariak:** Haseran 35 bertsolariren agurrak

**Saioa:** Lazkano, Lopategi, Xanpun, Azpillaga, Egileor, Mugartegi, Garmendia, Etxeberria eta Gorrotxategi.

## JOXE AGIRRE.

- Usurbilgo Saria: 1.959 1.
- Donostiako Saria: 1.962an 2.
- Loiola Irratikoa: 1.963an 1.

## Omenaldi egunean kantatutakoa:

Oso harriturikan  
nago geratua  
hoinbeste jende nola  
dan inguratua  
itxaropen bat badet  
neureganatua  
ustez ez izan arren  
gizon sonatua  
Euskal Herrian ez naiz  
seme sobratua.

## 12. - PAULO ZUBIARRAIN PAULO TXIKIA / «HERNANI TXIKIA»

1.912-IX-26an jaio Ereñozuko Telleria baserrian, Hernanin.

1.943an ezkondu Donostiako Egiara, Manuela Iparagirrekin.

Orain Lasarten bizi da.

**OMENALDIA:** 1.981-I-18an Anoeta Pilotalekuan, Loidi Saletxerekin batera.

**Bertsolariak:** Agirretan 40tik gora.

**Saioa:** Agirre, Amuriza, Azpillaga, Enbeita; Ezponda, Gorrotxategi, Larrañaga, J. Lizaso. Lopategi, Mendizabal, Mugartegi, Mitxelena, Murua, Peñagarikano eta Xanpun.

## ANTONIO MARI EIZMENDI «LOIDI SALETXE»

1.913-I-28an jaio Errezilgo «Loidi Saletxe» baserrian.

1.947-V-30an ezkondu eta bere jaiotetxean bizi da.

**OMENALDIA:** 1.981-I-18an Anoetan Paulo Txikiarekin batera.

Eskertu nahi zaituztet  
al nezaken gixan  
guretzako gaiztoak  
etzerate izan  
erregutuko diot  
Jaunari elizan  
entzule maite habek  
zintzo gorde ditzan  
norberen etxian da  
geroko bizitzan.

#### **PAULO TXIKIAK**

Erregaliak hartu ditugu  
Gaur bi eskuak betian  
Anai-arrebak portau zerate  
Guztizko borondatian  
hau zoramena, hau kontsuelo  
holako euskaldun artian  
gaurko eguna etzat aztuko  
arnasa detan artian.

#### **LOIDI SALETXEK**

### **13. - JON MUGARTEGI IRIONDO**

1.933-VIII-26an Berriatuko «Patrokua» baserrian jaio eta jaiotetxean bizi da Rufina Urruzunorekin ezkondua.

**OMENALDIA:** 1.982-I-17an Anoeta Pilotalekuan

**Bertsolariak:** J. Lizaso; Lasarte, Ezponda, Basarri, K. Lizaso, Areitio, Argiñarena, Intxausti, Loidi Saletxe, Paulo Txikia, AGURRA.

**Saioa:** Azpillaga, Laka, Lopategi, Etxeberria, Narbaiza, Sardui, Agirre, Attola, Larrañaga, Egileor, Gorrotxategi, Olalde, Ziarda, Arregi, Jon Enbeita, Telleria, Peñagarikano, Mendizabal, Garmendia, Mitxelena, Igarzabal, Iraola, Amuriza, Lazkao Txiki, Lazkano eta Xanpun.

#### **JON MUGARTEGI**

- Txapelketa Nagusia: 1.960an 8.; 1.965ean 8; 1.967an 9.
- Bizkaiko Txapelketa: 1.960an
- Loiola Irratikoa: 1.967an

#### **Bere omenaldian kantatutakoa:**

Gaurko eginkizunak  
ez dauka azkenik  
ez det uste hobeto  
egin lezazkenik.  
Bihotzaren zati bat  
emango nuke nik  
inor balego hemen  
hartuko lukenik  
bestela ez det pentsatzen  
ordaindu leikenik

### **14. - MANUEL SEIN «XANPUN».**

1.928-XII-21 ean Senpereko Olagaraia etxean jaioa.

Sei urte zituela Urruñako «Xanpun» etxera joan zen bizitzera bere familia osoarekin.

1.954-X-San ezkondu zen Anttoni Basurkorekin eta Donibanen bizi da.

**OMENALDIA:** 1.983-I-23an Carmelo Baldan.

**Bertsolariak:** AGURRA: Bertsolari sail luze batek.

**Saioa:** Zeberio, Telleria, Attola, Arregi, Azpillaga, Lazkano, Amuriza, Lopategi, Igarzabal, Agirre, Mitxelena, K. Lizaso, Gorrotxategi, Alkat, Etxeberria, Larrañaga, Egileor, Narbaiza, Mendiburu, Jon eta Abel Enbeita, Lazkao Txiki, Garmendia, Laka, Mihura, Murua, S. Lizaso eta Ezponda.

## **MANUEL «XANPUN»**

- Txapelketa Nagusia: 1.980koan finalista

### **Bere omenaldi egunean kantatutakoa:**

Huna zer dudan edo gaur zeri  
nago ni hemen iarrik  
gure arbola zahar maiteak  
ez duela adar iharrik  
gehiago ez da erran beharko  
ez Hego eta Iparrik  
ez berezkuntzik egin sekulan  
ez otoi galdu indarrik  
erran dezaket egungo Baldan  
Euskadi dela bakarrik.

## **15. - TXOMIN GARMENDIA.**

1.934-II-3an Berrobiko «Tontola» baserrian jaioa.

1.988-VIII-30ean ezkondua

**OMENALDIA:** 1984-I-22an Astoria Antzokian.

**Bertsolariak:** AGURRA: Bertsolari sail batek.

**Saioa:** Zeberio, Mendizabal, Amuriza, Attola, Larrañaga, Azpillaga, Etxeberria, Mitxelena, Peñagarikano, Telleria, Iraola, Narbaiza, Igarzabal, Lazkano, Xanpun, Ezponda, Mugartegi, Arregi, Altuna, Gorrotxategi, Olalde, Enbeita, Euskitze, Lopategi, Agirre, Lazkao Txiki, J. Lizaso eta Egileor.

## **TXOMIN GARMENDIA**

- Txapelketa Nagusia: 1.965ean 7.; 1.967an 7.; 1.980an eta 82an finalista.
- Gipuzkoako Txapelketa: 1.967an
- Usurbilko Saria: 1.959an 2.
- Ordiziako Saria: 1.959an 1.

### **Bere omenaldi egunean kantatutakoa:**

Pena da baiña hemen ez daude  
gogoa zuten guziak  
gure baratza osatzen dute  
larrosak eta sasiak  
itxaropenik galdu gabe  
goza ditzagun gaziak  
gure Euskadi bizi da oraindik  
Jaungoikoari graziak.

## **16. - JESUS ALBERDI «EGILEOR».**

1.931-I-6an Elosuko «Egileor» baserrian jaioa, Bergaran.  
Bergaran bizi da Bittori Larrañagarekin ezkondua.

**OMENALDIA:** 1.985-I-13an Astoria Antzokian.

**Bertsolariak:** Sail baten agurrak.

**Saioa:** Gorrotxategi, Larrañaga, Narbaiza, Mendizabal, Igarzabal, Iraola, J. Enbeita, Peñagarikano, Telleria, Azpillaga, Lazkao Txiki, Mitxelena, Euskitze, Ezponda, Altuna, Garmendia, Alkat, Olalde, Ziarda, Sebastian Lizaso, Lazkano.

### **Bere omenaldi egunean kantatua:**

Eskerrik asko entzule danoi  
ta eskerrak zuri Donosti  
gaur bezin xamur begiak malkoz  
sarritan etzaizkit busti.  
Gorputzez ere dardaraz nago  
gaur etorri ezgerozti  
eztet izango daukaten zorra  
ordaindutzeko lain asti  
baina bihotza eskeintzen dizut  
bere maitasun da guzti.

### **17. - PATXI ETXEBERRIA ZUBIRIA.**

1.930-X-14ean Orioko Errezabal baserrian jaioa.

1.955-XI-26an Inazia Etxeberriarekin ezkondua Lasarten bizi da.

**OMENALDIA:** 1.986-I-20an Victoria Eugenioan.

**Bertsolariak:** Sail baten agurrak.

**Saioa:** Azpillaga, Garmendia, Gorrotxategi, Larrañaga, Attola, Egileor, Olalde, Otamendi, Argiñarena, Ezponda, Laka, Lopategi, Igarzabal, Nikolas Zeberio, Iraola, Goiburu, Mendizabal, Xabier Zeberio, Lazkano, Sebastian Lizaso, Mitxelena, Egaña, Narbaiza, Areitio, Amuriza, Jon eta Abel Enbeitia, Peñagarikano, eta Lazkao Txiki.

### **PATXI ETXEBERRIA**

- Txapelketa Nagusia: 1.980an finalista
- Loiola Irratikoa: 1.965ean.

### **Bere omenaldi egunean kantatua:**

Aitatu gabe ezin utzi nik  
ez bertsolari lagunak  
esker beroa merezi baitu  
hoinbeste lan egin dunak  
neregandikan esker beroak  
neregandik zorionak  
ta zuen morroi pasako ditut  
gelditzen diran egunak.

### **18. - JON AZPILLAGA URRUTIA.**

1.935-XI-26an Pasaian jaioa. Urte t'erdi zituela Berriatura joan eta bertan bizi izan zen 20 urte baserritar gisan.  
Urte bat Ondarrun eta Mutrikura ezkondu zen Maritxu Arrizabalagarekin.

**OMENALDIA:** 1.987-I-18an Astoria Antzokian.

**Bertsolariak:** Sail baten agurrak.

**Saioa:** Egaña, Sarasua, Euskitze, Gorrotxategi, Telleria, Peñagarikano, Jon Enbeitia, Xabier Zeberio, M. Mendizabal, Begiristain. P. Iraola, N. Zeberio, Igarzabal, Lopategi, Larrañaga, Narbaiza, S. Lizaso, Lazkano, A. Enbeita, Ajuria, Amuriza, B. Agirre, Olalde, Argiñarena, Ziarda, Mañukorta, Mitxelena.

## **JON AZPILLAGA:**

- Txapelketa Nagusian: 1.960an 3.; 1.962an 8.; 1.980an eta 82an finalista.
- Bizkaiko Txapelketa: 1.961 ean
- Loiola Irratikoa: 1.964ean.

## **Omenaldi egunean kantatua:**

Bertsolarien bizimodua  
dira poza eta penak  
etxetik erten ta herririk-herri  
ibiliak gera denak  
Baina gehiago sufritzen date  
sukaldean zai daudenak  
bertsolarien emaztekiak  
nerea eta bestenak  
zuek zerate txalo guztiak  
merezi dituzutenak.

## **19. - BAUTISTA MADARIAGA ELIZONDO.**

1.926-XI-7an Arantzako Mutikonborda baserrian jaioa. Ezkonduta bertan bizi da.

**OMENALDIA:** 1.988-I-17an Astoria Antzokian bere anaia Xalbadorrekin batera.

## **BAUTISTA MADARIAGA**

- Txapelketa Nagusia: 1.967an 10.
- Nafarroako Txapelketa: 1.961 ean txapeldun.

## **XALBADOR MADARIAGA ELIZONDO:**

1.930-XI-San Mutikonborda baserrian sortua.

**OMENALDIA:** 1.988-I-17an Astoria Antzokian bere anaia Bautistarekin batera.

**Bertsolariak:** Sail baten agurrak.

**Saioa:** Amuriza, Sarasua, Agirre, Ajuria, J. Enbeitia. J.F. Argiñarena, Fagoaga, Gorrotxategi, Sebastian, Lazkano, J.M. Argiñarena, Iraola, Igarzabal, Begiristain, X. Zeberio, Mendizabal, Peñagarikano, Telleria, Olalde, B. Agirre, Intxausti, Lopategi, Larrañaga, Attola, Zabala «Lexo», Egaña, Elgetzu, Ezponda, Lazkao Txiki, Mañukorta, Narbaiza.

Agurtzen ditut gaur bildu diran  
Hemerago zar da gaztiak  
gainera berdin andre ta gizon  
txiki ta haundi guztiak  
gaixo lekuban sufritzen zenbait  
espetxeetan bestiak  
hoiek dirade neure bihotzak  
gaur ditun kontu tristiak  
penik haundiña hau sentitzen det  
nik danak ez ikustiak.

## **BAUTISTA MADARIAGAK**

Geure herria aipatu behar  
han jaiotako geanaz  
nik ezin paga behar gixian  
hainen pobrea izanaz  
baño halere agurtu nahi det  
nere eskerrak emanaz  
agur bero bat ematen dizut  
ne bihotzeko Aranaz.

## **XALBADOR MADARIAGAK**

### **I - BIOGRAFIAZ**

Joxe Luix Lekuona Garaiar, «Lexoti», 1925eko Azaroaren 11ean jaio zen Oiartzungo Iturriotz auzoko Maixta-Borda baserrian. 63 urte bete berri berriak beraz.

Bere jaiotexea desegin zen, eta gaur egun horma zahar batzuk besterik ez dira gelditzen.

Hiru senide dira eta Lexotiren bi arrebak Pepita eta Rosario, Ereñozun lehenengoa eta Andoainen bigarrena bizi dira gaur egun, biak ezkondata.

Nondik «Lexoti» izengoitia: Bere aitona Ergoien auzoko Lezoti baserrian egon zen morroi gaztetan. Hau ere bertsotan aritzen zena eta oso ezaguna zenez, «Lezoti» deitzen zioten. Gero aitonaren izengoitia aitak jaso zuen, eta semeak ere, «Lexoti» noski.

Gaztetan ez zuen etxe-bizitza bat bakarra izan, beharrak hala eraginda, batetik bestera behin baino gehiagotan ibili behar izan zuen.

Ikasten ere ibili omen zen baserri batetan zegoen sasi-eskolaren batetan, eta berak dionez dotrina ere memoriz ederki ikasi omen zuen.

Hamabost urtetarako bihurrikeri ugari eginda omen zeuzkan. Sagardotegietan ere muturra sartzan hasia zen, eta bere lehenengo bertso lotsagabeak kantatzen ere bai.

Hamazazpi urtetan lanean hasten da, eta hasi bazen hasi, gehienak jiratu ditu bere bizitzan zehar: Hargintzan pioi, baso lanetan, Pasaiko portuan... 47 urtetan Oiartzungo Udaletxean kalegarbitzaile sartzan delarik.

Bere bizitzan gauza gehienetan bere trebetasunak eta abildadeak erakutsi nahi izan ditu, eta ahal bazen jende aurrean eta plaza erdian. Lexoti denean zen txapeldun.

Lexotik bere bizitza osoa eta bere inguru guztia dema iraunkor batetan bihurtzen du, etengabeko dema eta desafioa.

Aurrerago aterako diren «Indarra eta kelmena» izango dira bere bizitzako lagun eta bere bertsoetako esamolde propioa.

Mila lan klasetan ibili arren, ez zen sekula ofizio iraunkor baten jabe egin. Nahiko lan eta buruhauste ematen zioten bere bertso saioek eta bere apostuek.

1983an Lexoti gaixotu egiten da eta maliziaz betetako bere irrimuxu hura tristatzen eta apaltzen doa poliki poliki. Zeraman bizimodua ere agian ez zen aproposena. Bera ez zen gehiegi zaintzen, eta etxean ere inor ez zeukan behar bezala zaintzeko, azken urte horietan bakarrik bizi baizen.

Beraz, Lexotik bere burua nahiko gaizki ikusten duenean, dena uztea erabakitzen du.

Uzten ditu apostuak, uzten ditu bertsoak, uzten du bere Udaletxeko lana eta uzten du lagunarteko giroa eta herria. Bai azkenean Oiartzun herria ere utzi egin behar izaten du, norbaitek zaindu behar eta bere arreba Pepitak hartzen du bere Ereñozuko etxean. Geroztik han bizi da, lehen asmoz sendatzera bakarra joan baten ere.

Lagunak ez ditu ahaztu eta lagunek ere ez dugu ahaztu. Bere ahuntzak entretenigarri bezala hartuta lasai bizi da apostu eta dema soinetatik urrun, bertso-saio amaieragabekoetatik urrun, osasunari eustearren behar duen bizimodua eginez.

Hala ere, Oiartzunganako lokarri guztiak ez ditu galdu, eta Xanixtebanetan ere hementxe izaten da festetan zintzo arraio bere arreba eta koinatuarekin.

Beste urteroko bixita bat ere badu. Haurtzaro Ikastolan azken urteotan antolatzen den Bertso Txapelketara etortzen da. Hona ondoren zehaztasun batzuk:

### «LEXOTI» Saria Haurtzaro Ikastolan

Ikastolako Bertsolari Eskolako gaztetxoei begira eta hauen interesa nolabait zuzpertz nahiean edo, eta berauen saioak ugaritzen joan zitezen, bertan bapateko bertso lehiaketa bat antolatzeari ekin genion.

Bapatekotasun eta ziri bertso edo eskola zaharreko eta tabemako bertsolariaren eredu garbia LEXOTI izanik, horrelaxe bataiatu genuen bertso lehiaketa hau, LEXOTI SARIA alegia.

Lehenengoa 1983an ospatu genuen, ikasturte bukaerako jaialdiarekin batera, eta geroztik urtero antolatzen dugu. Beraz, azkenekoa, 1988koa, VI.a izan zen.

Egun horretan Lexoti bera etortzen da Ikastolara sari banaketa egitera, eta bide batez bertsoen bat edo beste ere kanta erazten diogu.

Hona hemen, azkenetako batetan eta saioari hasiera emateko kantatu zuena:

Gaur Oiartzunen pasa nahi nuke  
arratsalde bat gozua,  
hemen entzunaz gazte hauekin  
bertsotan saio osua.  
Dударik gabe hau izango da  
netzat egun erosua,  
zerua zer dan ez dakit baina  
hau dugu Paradisua.

Lehen atal hau bukatu baino lehen, beste aipamen hau ere egin beharko genuke: Lexotik ez duela bidean aurkitu edo eskolan ikasi bertsotarako joera eta trebezia. Bertsotarako dohain hori aitona-rengandik eta aitarengandik datorkio. Beraz, aurretik datorkio bertsotarako afizioa eta ofizioa ere.

Eskola zaharreko kabi beroan lumatutako txoria dugu Lexoti. Aita baino gehiago aritua zen aitona. Aita, Jose Antonio alegia, zer edo zer aritzen zena omen zen. Oiartzungo bertsozale eta Lexotiren lagun den Mariano Ostolaiz bertsolariak gogoratu digu, behin Urte Zaharretan Lexotiren aitak bota zuen koplak bat:

Uda zabalín arbola honek  
ematen duen itzala;  
etxe hontako famili dana  
Jaunak guarda dezala.

Aipamen berezia merezi du aitona, Joxe Manuel Lekuona Etxagoien. Hemen ez gara arituko bere bertsoetaz eta bere bizitzaz, izan ere, «Auspoa» liburu bilduman eta 115. zenbakian nahiko zabal agertzen bait dira berauek.

Hemen, bakarrik esan, Lexotik berak ere ez dituela bere aitona-amonak ahaztuak, ondorengo bertsoan nabari den bezala:

Ni Oiartzunen bizituzen naiz  
aitona-amonen etxian,  
negar malkoak irtetzen zaizkit  
haien zat akordatzian.  
Gure Jainkoak hala nahi eta  
mundu hontatik joan zian,  
besarkada bat emango diet  
Josefatera biltzian.

## II - LEXOTI BERTSOLARIA

### ESKOLA ZAHARREKO BERTSOLARI HERRIKOIA

Nonbaitetik hasi behar eta bere «Palmaresa»rekin hasiko gara. Lexotirentzat gauzarik garrantzitsuenak horiek dira, gaur egun erdi ahaztuak baditu ere, txapelak, kanpeonatuak eta sariak alegia.

Hala ere guk ez diogu «Palmares» honi garrantzi handirik eman nahi eta datu hotzak eta zehatzak eman ordez, bere pasadizo, istorio, bertso eta gertakizunaz adornatzen eta ilustratzen saiatuko gara hemendik aurrerantzean. Izan ere datu historiko eta biografikoekin ezin baita deskribatu Lexoti bezalako pertsonaia zirikatzaile, malizioso, erdi tranposo eta xeble bat.

Nolanahi ere, esan genezake Donostian, Perlan, 22 urte zituela I. Saria irabazi zuela. Horretarako «Elio»-rekin desenpatea jokatu behar izan zuela ere bai, nonbait, orduan ere ba ziren enpateak. Eta antolatzaileek horrelaxe utziko zuten galdetuta, Lexotik «ezta pentsature» esan omen zien, «han ez zela enpatean utzi behar, aurrena edo bigarren».

Beste behin, Zepai sarian 2. Saria ere irabazi zuen Patxi Iraolaren atzetik. Handik aurrera beste zenbait sariren jabe egin omen zen Donostian, Ordizian...

laz, omenaldirako kandidatu bezala aurkeztu nahi eta beregana jo genuen hain xuxen, lortutako sarien berri galdetzeko. Grazi handia egin zigun honoko honekin:

- «Beste behin Saran ere ba dut 9. postu bat lortua. Han gainera jende inportantea huera: Uztapide, Mattin, Basarri... »

- Baina hala ere ezin jarriko dugu 9. postua lorpen ora bat bezela ezta?

- «Bai, bai, hori jarri, jarri behar tzuten lekuan, Mitxelenak 10. egin zian eta, ni orduan ere Mitxelenaren aurretik behintzat».

Bere kategoria zela eta Uztapide zenak behin eta berriro honoko hau botatzen omen zion, gehienetan Lexoti gizarajoa hitzik gabe, erantzunik gabe uzten zuelarik:

- Lexoti, dudarik gabe hi haiz bertsolaririk onena- Eta horra iristean isilune bat egin eta jarraitzen omen zuen:  
-Baina, bigarren mallan-.

*Bere bertsolari mailarekin jarraituz, honela bota zigun orain gutxi berarekin geunden batean Ereñozuko bere arrebaren etxean:*

*- Zer, Oiartzun alde hortan ba al da bertsolaririk? -Orain Mitxelena ibiliko duk nagusi Koxme Lizaso hartuta. Lehen ni ibiltzen ninduan Mitxelena hartuta ta-*

Hemen ikusten da noraino iristen den bere txispa eta bere ironia, bere zirrikarako joera eta beti besteak tentatzeko afizio zorrotza.

Beste Oiartzuar batek, Xabier Letek, hara nola azaltzen duen Lexotiren izaera:

- Gizon argala Lexoti, beti horrela izan da. Luzexka, ezpain finak, sudur xorrotxa eta begietan halako irri bildurti eta era berean pikaro bat... Lexotiren ahotik ez genduen filosofia bihurri edo korapilaturikorik, ez eta ideia traszendental edo nagusirik entzungo; ez baita izan egi sakonetan hondotzen den filosofoa.

Baina, bai horren orde, zirikada, ziztada eta xelebreekeria ugari. Eta noiz behinka, batek gutxiena espero duenean, halako bertso xamur eta gizakoiren bat ere .... -

Lexoti txispa handiko bertsolaria dugu. Behar bada ez da iristen egun goi mailan dabilen zenbait bertsolarien neurrira. Agian ez du motibo handirik ere. Bere eskola bakarra bizitza izan baita, bere bertsolari eskola bakarra taberna eta sagardotegia, bere mundua oso mugatua eta itxia,... Baina, arrazoitan nork eraman?

Ziriak sartzen nork eraman?

Kontrarioa tentatzen eta gaiarii jarraitzen nork?

Aurrerago, bere bertso saio bat aztertzerakoan ongi ikusiko ditugu dohain guzti horiek.

Lexotiren oraingo bertso bat, orain ehun urtetakoa bezelakoxea da: irtenaldiak, esamoldeak, arrazoiak, fonetika,... Bere bertsoak egia esan entzutekoak dira, entzunaz dute zentzua eta balioa. Askotan oso zaila egiten da bere bertsoak paperera pasatzea, eta, pasata ere, gehienetan dexente devaluatuta.

Hara zer esan zigun lagun batek Lexotiren bertso saio baten kaxeta entzun ondoren: -Motel, motel, gaur egungo bertsogintzarekin ohituta, hau entzutea, ganbarako amonaren berrehun urtetako altxor-kutxa zaharra irekitzea duk-

Bere bertsoak ez dira bertso sakon eta landuak, ez dira goi mailako hizkuntza agertzen dutenak. Baina, bai herri hizkuntzan oinarrituak, bai herriko ohituretan oinarrituak, bai herri xeheak ulertzekoak, bai herri eta ahozko literaturaren sustraietan oinarrituak, bai...

Etxetik ikasia dugu, etxean ikusia. Bere iturria guztiz ona eta ezin agorturikoa. Almacen ona eta kalitatezkoa, aberatsa. Eta aberastasan hori ez bakarrik bertsotarako, mintzatzeko, kontatzeko, arrazoiak, emateko, bizitza ulertzeko, pasadizo eta txistetarako...

Lexoti tradizio zahar baten lekuko aparta eta berezia dugu.

Eskola zaharreko bertsolariatik bat, eta esango dugu zergatik:

## **1. - Bapatekotasunaren grina.**

Bapatekotasunaren grina. Hau ezin zaio ukatu Lexotiri. Lexotik beti gaiari eta batez ere kontrarioari jarraituko dio, besteak esandakoari erantzungo dio zuzenean. Eta ez erantzun bakar, ahal badu gehiago, eta bukaeran ziria sartu ere igual. Lexotik gutxitan -Agurren bat edo ez bada- ekarriko du bertsoa prestatu, ez eta azken errima ere gehienetan.

Tabernako bertsolaria dugu.

## **2. - Eskolarik eza.**

Eskolarik eza. Eskolarik ez duela esatean, ez dugu ez jakina denik esan nahi, letrarik gabekoa baizik. Beraz, bertsoa belarriz egiten du eta ez idatziz. Buruan hotsak eta doinuak ditu erritmo batetan, eta ez bertso idatziak.

Eskola zaharreko eredu Txirrita badaukagu, Lexotik ere ez al du honen antzarik?

Noski, diferentziak nabarmenak direla, baina hemen estiloz ari gara eta ez mailaz.

Lexotirentzat ere, bertsoan ikasteko institutua sagardotegia izan baita, eta han egin zuen «batxillera». Unibertsitatea berriz herrietako plazak.

Lexoti eta Txirrita mundu berdinekoak direla esan dezakegu. Gaurkoa ez den mundu batekoak, mundu primitibo batekoak.

Lexoti edozein mila zirkustantziagaitik, aintzinako mundu primitibo horren testigantza bizia egiten gelditu zaigu.

## **3. - Bere bizitza**

Bere bizitzari gainbegirada bat emanez gero, eskola zaharreko edozeinen antzekoa dela esan behar:

- Egun batean pobre, bestean aberats.
- Lanbide jakinik ez, ofiziorik ez.
- Emazte edo familia propiorik ez.
- Gaur etxe batetan bizitzen, bihar beste batetan.
- Feriaz feria, non zer edo nor aurkituko.
- Sagardotegiz sagardotegi.
- Apostuz apostu, beti festa edo dema sortuaz bere inguruan
- Gaur basoan lanean, bihar idiekin itzai, etzi korrikalari, hurrengoan aizkolari, hurrengoan harri-jasotzen, hurrengokoan oilar edo ahari apostuetan...
- Irabazitakoak segituan gastatzeko prest. Sekula diru askoren jabe egin gabe, baina afari on bat egiteko patrikan inoiz dirurik falta ere ez.
- Gutxirekin beti konforme.
- Gaur gaurkoak eta bihar ikusiko diagu.
- 

Norbaitek BASA KRISTUA izenez ere definitu izan du Lexoti.

Beste batzuk, bertso kantuan aurrera joan dira, behar bada, garai batean Basarriren Eskola bezala ezagututako mugimenduari jarraituz. Ez dugu ahaztu behar, Txirritaren taberna zuloko lagun arteko bertsoa, Basarrik, traje eta korbata ederrez, kalera atera zuela. Honetan Manuel Lekuona zenak ere zer ikusi handia izan bazuen ere. Geroztik, bertsoa Eskolaraino ere ailegatu zaigu Amuriza eta bere jarraitzaileen eskutik.

Baina Lexotik ez zuen bide berri hori hartu, ezin zuen bide hori hartu, Lexoti lehengoan gelditu bait da, eta horrekin herria izan da irabazle.

Lexotik ez zuen gaijartzaile handirik behar izaten, eta baten bat suertatuz gero, laister esango zion zein gai jarri, edota gai librean jartzeko.

Eta bere gai libreak aski ezagunak ditugu:

- Bere diruak eta aberastasunak (Inoiz izan gabekoak)
- Bere andregai eta neskak (Oraindik ere bat hartzekotan)
- Indarra eta kemena (Gaixoaldi larrienetan ere)

### III - ZENBAIT PASADIZU

Aurreko bi ataletan Lexotiren bizitzaz mintzatu gara eta bere bertsolari mailaz eta estiloaz. Orain arte esandako hori nolabait frogatzeko edo beste bi atal datoz ondoren:

- Bere zenbait pasadizu, eta
- Bere bertsotako azken saioak.

Horrela, bertsozale irakurleak izango du aurretik esandakoa eta ondoren datorrena bat datozen ala ez aztertzeko eta erabakitze aukera.

Lexotiri buruz esandakoa nolabait ilustratu nahi genuke ondorengo bi atal hauetan. Saiatuko gara, bai bere bizitza eta bai bere bertsotako erak argituko dizkiguten muestrak ipintzen.

Helburu horrez gain beste bat ere ba dugu gure gogotan: Irakurleen ezpainetan farre-murriz bat lortzea, era berean Lexotirenganako oroitzapen maitekor bat sortuz.

1936ko Gerra ondoren, egun gogorrak eta zailak ziren guztientzat. «Razionamentu» garaiak ziren. Denak non zer harrapatuko ahora eramateko. Baina, Lexotik orduan ere adar jotzeko gogorik ba zeukan. Mutiko kozkorra artean, baina mutiko kozkor deabrua, inpernuko malezi guztiak berekin zituena.

Behintzat, Lexotiren aitak Arditurriko mehatzetan egiten omen zuen lana, olio «razionatua» handik ekartzen omen zuen etxerako.

Behin, Iturriotzen gure Lexoti hor elkartzen da Exkerra bertsozalearen ama Joxepa Inaxirekin. Lexoti Arditurritik zetorren bere aitak emandako garrafoi olioarekin.

Emakumeak mutikoa ikusi du eta azkar hasi zaio tentatzen zer edo zer lortzeko asmotan:

- *Nondik dakark olio?*
- Eta Lexotik berehala:
- *Ergoiengo Pauko Errotan saltzen dute. Hantxe eros dezakezu nahi duzun guzia etxeko andre.*

Baita Gure Joxepa Inaxi azkar asko joan ere bere garrafoia hartuta olio bila, Ergoien auzo aldera; baina, alfer alferrik. Garrafoia hutsa bueltakoan ere.

Gehienetan Lexotik sartzen zien ziria besteei, baina tarteka berak ere jasotzen zuen bat edo beste.

Behin honela esan omen zion Joxe Joakin Mitxelenaren aitari:

- *Aizu, bart arratsean zure seme hori borrokan aritua da, eta txiki arraio eginda utzia izan behar du norbaitek.*

Eta Mitxelenaren aitak:

- *Hala ere, puskarik txikiena hi baino handiagoa izango dik gelditua.*

Lexotiren ustetan, deportista ona ez ezik, preparadore bezala ere ona kontsideratzen zuen bere burua. Berak zioenez honoko laukote hau preparatzen zuen, eta nola ginera?

- Nik hartzen ditudan guztiak txapeldun egiten ditut. Hara:*

*Uztapide hartu nian, eta txapeldun.  
Polipaso hartu, eta txapeldun.  
Atano X. a hartu eta hura ere txapeldun.  
Orain Urtain hartu diat eta hau ere txapeldun egin diat.*

Eta jendeak arrazoi eman behar.

Egun batean Iruna joan ornen ziren bertsozara Uztapide, Mitxelena, Patxi Sein eta Lexoti. Denak «Kanitxipi»ren kotxean joan ziren.

Bertsoak bukatu ondoren, Lexotiri aukera etorri eta Lesakara joan omen zen neskaren bati laguntzera.

Bien bitartean, besteak ere hor barna nonbait eta Mitxelena berriz seko lo kotxean sartuta.

Handik gutxira, Iturriotz-eko Santio festetan, biak bertsoan zirela, Lexotik zapla bota:

Lesaka aldeko bi neska gazte  
nigana inguratu zian,  
Lexotirekin pasiatzeko  
zeuden pozaren pozian,  
gero etxera lagundutzeko  
bitan batek esan zidan;  
nik hango jira egin artean  
Mitxelena lo kotxian.

Mitxelenak:

Hik diokenez lo egin nian  
kanitxipiren autuan  
bide zuzenez ez nenbilela  
erori niñun kontuan,  
komentzia banian nik-e  
nahi banun haruntza juan  
baina ez nian pekaturik nahi  
seigarren mandamentuan.

Ergoiengo taberna batetan Guardia zibilak sartu ziren batetan Lexoti ere hantxe tokatu eta honako bertso hau bota omen zuen derrepente:

Mirandaz goitik etorri eta  
egin nahi digute parra,  
esan liteke alperrik dela  
euskaldunaren indarra.  
Jendaila honek aurpegi beltza  
ta lepo ondo igarra,  
kastigurikan txarrena dugu  
geurok mantendu beharra.

Haietako bat harrituta gelditu nonbait ikusi eta entzun zuenaz, eta honela esan omen zuen:

- «*Aiva la otia!! Qué bien canta ete tio!!*» -

Lexoti Uztapiderekin oso lagun ikusi izan dugu beti. Mitxelena ere laguna zuen, Mariano Ostolaiz edo Koxme Lizasoren antzera agian. Hala ere, bertsoan aritzeko, berak Mitxelena nahiago seguru asko beste edozein baino. Hori zuen gustokoena zirrikaka hasteko.

Baina, Uztapide, bertsoarako eta gainontzerako lagun ez ezik, zerbait gehiago ere ba zela esango genuke, bere maisua. Lexotik ba zekien ondo bere bertsolari neurria norainokoa zen.

Hala esaten omen zuen, noiz edo noiz bertsolarien txapelketaren gai ateratzen zenean:

- *Txapelketa oraintxe bertan eginez gero, txapela ez litzake Gaztañeitik pasako* -

Gaztañei, kalea eta Ergoien arteko mugan dagoen basarria da. Eta noski, Uztapide Ergoiengoa zen, baina baita bera ere.

Bertsotarako bezelaxe, bizitzan ere, dirua gai gustokoa zuen Lexotik. Berekoa eta zuhurra izan gabe, beti ba zuen saltsaren bat diru konturen batekin. Baina, lehen esan duguna, berari bost axola diruak; gaurko baldin bazuen, gero geroakoak. Baina berak ba zekien besteak ez zirela horrelakoak, diruzaleak baizik, eta hauekin jostatzea gustatzen.

Zerbait tabernatan egunak eta egunak egiten omen zituen baso erdiak hartzen xentimorik ordaindu gabe.

Nola egiten zuen?

Normalki bi sistema erabiltzen zituen:

1. - Bera barruan zegoela ezagunik sartzen bazen, azkar asko esaten zion tabernariari: -Hi, *honi ere atera nahi duena!*

Bukaera betikoa, lagunak ordaintzen zituen biak noski.

Tarteka norbait haserretuz gero edo, hari astakeriaren bat bota eta lasai mutila. Adibidez honoko hau esango zuen: -*Dena nik egin behar al diat? Lana partitzea ere ez duk txarra ba-*

2.- Bigarrena berriz honoko hau izaten zen: Baso erdia hartu eta karteratik garaiko dirurik handiena jarri mostradore gainean. Milakoa ez bazen bost milakoa. Aste osoak egiten omen zituen billete berarekin, azkenean nazkatuta norbaitek aldatzen zion artean.

Hamar milakoa atera zenean ere azkar asko egin zen haietako baten jabe. Geuk ere berak erakutsita ikusi genuen lehenengoa.

Lexoti denbora frankoan sal-erosketako lurak begiratzen ibili zen. Han edo hemen zerbait bilatzen bazuen bere lagun kontratista zenbaitengana joaten zen eta haiek tratua egiten zuten. Berak ere komisio txikiren bat edo jasoko zuen, eta denak kontentu.

Hori zela eta, zenbait burlaka hasi zitzaion «Corredor de fincas» deituz eta farre eginez. Gehien bat farre egiten ziona Alzibarko Portuneko Julian omen zen. Beti «Corredor de fincas» delakoarekin adarra jotzen.

Lexoti asperturik, egun batetan hor doa galtzak belaunetaraino erremangatuta Portuneko terrenoetara. Bere metroa eskutan, jo eta ke hasi omen da hango lur denak neurtzen serio arraio.

Portuneko Julianek bai susto ederra eraman ere. -*Honek ea saltzen dizkidan terreno guztiak!*- omen zion etxetik korrika bizian ateratzerakoan.

Handik aurrera burlak bukatu omen ziren.

Lexoti pleura gaitz luzearekin egon ondoren astelehen batetan kalera atera omen zen eta feria eguna zen gainera. Kanean giro onaskoa eta bertsolariak ere tabernaz taberna. Lexoti ere lagun artean egoki taberna batetan eta hor sartzen da Iriarte –Frantsesa- bertsolaria. Lexoti ikusi orduko honoko bertso hau bota zion:

Lexoti honek pasa omen du  
oso min klase luzia,  
eoteko martxaz apenas dagon  
oraindik ere asia.  
Gandul guzien txapeldun dago,  
alper ta erdi pasia,  
ta sendatutzen ez da erraza  
honek daukan min klasia.

Lexotiren erantzuna:                   Neri alperra esanta horrek  
  ustez egin du grazia,  
  bera-re ofizial ona ez dela  
  denak dugu ikusia.  
  Alperrak mina berekin dula  
  haiz kontatutzen hasia,  
  hik ordun minez pasa beharko duk  
  hire denbora guzia.

«Frantsesa»ri ederra sartu zion, baina, Don Regino sendagilea ere han, eta honela galdetu omen zion medikuak Lexotiri:

- Zer esan ditek bada sanatorioko espezialistek?

- Sendatu naizela eta lanean edo hasi nintekeela.

Eta medikuak:

- O! Nik sei hilabetetan ohean egoteko enkargu txarra eman niala baina, oraingo honek ez dik ederragoa eman!

Urteak aurrera eta Lexotik lanbide fijosik ez oraindik. Azkenean, Mitxelenaren laguntzaz edo Oiartzungo Udalan sartzen da lanean barrendero bezala. Udalaren postura eskertzekoa zen Lexotiren aldetik, baina hori gure ustetan, Lexotik behintzat ez zeukan hori oso garbi.

Bestela irakurri datorrena:

Lehendabiziko eguna iritsi da, eta Lexoti ez ta agerture lanera.

Mitxelenak egun berean jakindu du, eta badoa bere etxera. Izugarritzko bronka bota ondoren, Lexotik lanerako arropa egokirik ez zuela bota ez zion ba?

Eta Mitxelenak:

- Berrendero joateko trajea ta korbata behar al dituk?

Mitxelenak Iruñarrenera bidali zuen bonbatxoak erostera, *-Bihar han ikusi nahi diat!-* esanez.

Hurrengo egunean Lexoti han azaldu omen zen zintzo zintzo bere bonbatxo berriak jantzia Oiartzungo kale guztiak ispilua bezala uzteko asmotan.

## IV -- LEXOTIK PLAZA BATETAN ETA JENDE AURREAN EGINIKO AZKEN BERTSO SAIOA

Orain artekoan Lexotiri buruzko zenbait argibide eta ezaguera eman ditugu. Bere izakeraz eta afizioetaz ere aritu gara. Bertsoa egiteko estilo eta era bereziak ere ikusi ditugu.

Bertsoetarako lagunik gustokoena Mitxelena izan duela ere argi dago.

Eta orain arte esandako guztiaren adibide edo muestra egokiak iruditu zaizkigu, bere azken saio hauek. -Izan ere, bertan Mitxelena izango du lagun edo kontrario.

- Bertan aterako ditu bere «indarrak eta kelmenak» bere kuraje eta sasoiak,...
- Bertan agertuko ditu bere ezkontzeko desio eta intentzio biziak, eta bera maite duen neska gaztea zeinen dotorea den.
- Bertan agertuko dira bere «Markes eta Duke» eta bere «edukaziyua».

Garai horretan 57 urte betetzeko zegoen artean, baina ordurako nahiko mintxo aurkitzen zen. Handik denbora laburrera ingresatu behar izan zuten, eta ondoren arrebarengana joan zen bizitzera, honek behar bezala zain zezan.

Hala ere ez pentsa nolana kuzkurtzen zenik Mitxelenaren kolpe gogorrekin, eta bestela arretaz ikus ondorengo bertsoak.

Saioak luze xamarrak joan ziren eta ez ditugu bertso denak ekarriko noski. Egindako aukera ea egokia gertatzen den.

### 1.982-VIII-28

**Bertsolariak: LEXOTI eta MITXELENA**  
**Lekua: Errenteriako Goiko Kalean**

Agurrak egiterakoan, ez ziren banarekin konformatu, eta laister hasi ziren bertatik elkarri zirika:

- Lexotik andregai eder bat baduela esaten du eta

#### **MITXELENA:**

Neska polita ezkontzekoan  
hori ez da gaurko moda,  
nik ez dut ezagututzen eta  
neskatx hoi nor izango da?  
Bientzako iritxiko al da  
Lexoti honen eskoba\*  
Leno ederra baldin badare  
laister aldrebestuko da.

\* Garai hartan Lexoti Oiartzungo  
kalegarbitzailea zen.

#### **LEXOTI:**

Neretzako den lore eder hoy  
eun batin mundura jaio,  
hura kuidatzen nik egingo dut,  
jaunak makina bat saio,  
laneko ere nola nagoen kurajetsu eta iaio,\*

ni hartzen banau edertuko da  
lehen ederra dala baino.

\* Oso gaixorik zegoen arren ....

Gaia emanda eta puntua jarrita aritu ziren eta

Ondoren ofizio hau eman genien:

«Lexotik Mitxelenaren alabarekin ezkondu nahi du, baina Mitxelenak, aitak, ez dio alabari Lexotirekin ezkontzen uzten».

### **MITXELENA:**

Nik alabari egingo diot  
behar dun alibioa,  
baino hobe du atzera utzi  
dadukan amorioa,  
hau baztertuta hartu dezala  
gizon on ta serioa,  
nahi ez badu hor bizi guztiko  
bere purgatorioa.

### **LEXOTI:**

Alabak asko maite nau eta  
aitak gorroto fuertia,  
gizon gaixtua ez izan arren  
falta du borondatia;  
ta ez luke nahi alaba er hoy  
gure etxera joatia,  
galeraztia baino hobe duk  
dote ona ematia.

Beraiek hala eskatuta, ondoren gai librean jarri genituen:

### **MITXELENA:**

Beste hiru edo launa dauzkagu  
elkarren berri emanez,  
Lexoti hau-re tentatu nahi det  
bere eunoroko lanez:  
Asko egiten duela dabil  
herri danari esanez,  
nahiz ta askotan hamaiketako  
lan tokira iritsi ez.

### **LEXOTI:**

Lexotik dauka berrenderotzan  
Oiartzun harretan gala,  
eta defenditu egiten naiz  
jaunak nota edo hala,  
Mitxelena honek hartuko luke  
nik daukadan martingala:  
Gutxi egindare kobratzen det  
egun guztiko jornala.

### **MITXELENA:**

Batzuentzako ordu lasaiak  
besteentzako estuak,  
Lexoti honek gezur batekin  
garbitzen ditu eskuak  
honek kobratzen ditu ederki  
baina ez hain legezkuak,  
berriz Mitxelenari etorko  
zaizkio inpuestuak.

### **LEXOTI:**

Gaurkoan jaunak ez dadukagu  
hemen bertsotan atsegin,  
ta berak nahi ez duela ere  
egiten baitu hutsegin,  
ta ezagutzen ez nauelako  
neri ematen bait dit min,  
autoridade baten aurrean  
edukazioz hitzegin.

### **MITXELENA:**

Herrian jarririkan daukagu  
eskobari eragiten  
zenbaitek hori nota ibili  
ere ez baitu jakiten,  
eta badaki zutik igual  
zazpi ordu itxogiten,  
bentaja bat du: erremintetan  
ez du gasturik egiten.

### **LEXOTI:**

Lanik ein gabe bizitzen dira  
zenbait markes eta duke,  
haiek bezela ibilitzeko  
deretxua berdin guk-e  
ta arrazoi bat danan aurrean  
orain kantatu nahi nuke:  
Mitxelenakin nork aguantatu  
nire puestua baluke?

### **MITXELENA:**

Gezurra ustez esan du baina  
nago egitaz jakinda,  
Lexoti baino hobekiago  
gaur bizitzea ezin da,  
honena hartuko baldin banu  
neuretikan aldegin da,  
neure biziko nintzake noski  
lan gutxiago eginda.

### **LEXOTI:**

Arrazoietan segituko dit  
kontuak ez dik balio,  
ta Mitxelena behin behar eta  
gora egingo nauk igo,  
Atamitxen jornal ona dela  
ni ez niok oso fio  
enpleatu bat behar duk eta  
hasi nahi al duk sozio?

### **MITXELENA:**

Eskerrak hemen esaten dena  
guztia dugula broma,  
hik ere lanerako kemena  
ederki dadukak jona,  
nere moduan etorri zaio  
zutikan ezin egona\*,  
honekin jaso liteke gora  
leno juxtuan dagona.

### **LEXOTI:**

Gaizki esaten Mitxelena honek  
gaur ematen du dotore,  
holakorikan ez esatea  
Joxakin eintzak mesede,  
oraindikan nere ergelean  
ba dit hik hainbat indar-e, Lexoti zutik ibiliko dek  
hi mundutikan joanta-re.

\* Lehen esan bezala, Lexoti nahiko gaixo  
aurkitzen zen eta tarteka balantzekoren  
bat ere egiten zuen.

### **MITXELENA:**

Esan ez beharreko moduan  
esango nizkion bi hitz,  
nik botatako bertsoarekin  
nonbait nik egin diot gaitz,  
lehenago esan det ni neu larri ta  
biok-e juxtuan gabiltz;  
nahiago nuke ni hil da gero  
oraindik biziko balitz.

### **LEXOTI:**

Honen bertsoa entzundakoan  
Lexoti dago gustuan,  
lagun handi bat hementxe daukat  
nik egindako juzguan,  
denak dakigu ni baino leno  
hau egingo dala jua  
baina lutua betiko netzat  
honek aldegindakuan.

Saioa hasi orduko, tabladura gizon bat hurbildu zitzaigun. «Makatz» izengoitiz eta bi bertsolarien oso laguna. Beteka politarekin azaldu zen eta han izan genuen saioan zehar bere botila ardotik ardoa eskaini eta ardoa eskaini.

Saio bukaeran eta legea jarraituz, puntutan jarri genituen biak, eta gai librean, noski. Hala ere, han ez zegoen gai liberrik, gaia aurrekaldean zeukaten, eta baita azkar heldu ere gure «Makatz» gizajoari:

- L. Beste batzuek orain  
puntua jarrita
- M. halako gaia zaigu  
orain etorrita
- L. Makatz kaxkar hau ere  
hemen aurrin baita
- M. hau omen dek hemengo  
golfo danen aita.
- M. Gaztetatik sortu zen  
horrelakoxia
- L. gizona jaio bai zan  
txit txarra klasia
- M. tripa galanta eta  
buruan haizia
- L. gainera sasoia-re  
daduka pasia.
- L. Deporterako ez haiz  
mundura jaioa
- M. Lan hortarako ez dek  
izandu iaioa
- L. seizak etxera motel  
eskas arraioa
- M. zurrutan egingo dik  
gaur ere saioa.
- M. Lehen Mondragonen huen  
bera geratutzen
- L. hango enfermerekin  
omen huen ibiltzen
- M. haik ibilko zuten hau  
neri iruditzen
- L. han erotu zeta hau  
bate-ez nauk harritzen.
- L. Mojak-e ibiltzen ttuk  
holakoen bila
- M. haiek ere nahi ditek  
holako mutila
- L. Mondragonen eon bada  
izorra dadila
- M. nonbaite hori ez dek  
hi bezain abila.
- M. Gure Makatzai zertan  
egin hainbat kalte
- L. ondo kantatzeko-re  
badut borondate
- M. mutil onaskoa dek  
lehenagotik mote
- L. Agur anai arrebak

hurrengo-urte arte.

## II 1.982-VII-13

Bertsolariak: **LEXOTI ETA MITXELENA**  
Lekua: **Altzibarko Anixeta tabernan.**

Urte horretan, Ikasturte bukaera zela eta, Ikastolako irakasle bazkarira gonbidatu genituen Mitxelena eta Lexoti, bazkalondoren umore pixkat jartzeko asmotan. Bazkariaren truke aritu ziren eta nola aritu ere!

Hiru bat ordutan ihardun zuten jo eta ke batek besteari zeinek baino zeinek handiagoak esaten.

Doinuak eta neurriak tarteka aldatzen zituzten, eta aurrera.

Lexoti tarteko izanik, gaiak ezagunak ziren: andregaiak, diruak... Baina, batez ere lehenengoari ekin zioten. Izan ere Lexoti gizarajoa andereñoz inguratua zegoen, eta hark ez zuen besterik ikusten.

Batez ere Arantxa Sarasti andereño oiartzuarra gustatu zitzaion, eta harentzat ziren gonbite guztiak:

**LEXOTI:** Jendea hemen aurkituzten da  
oso kontentu ta parrez,  
pentsatuko-zu ari naizela  
orain hizketan aldrebes,  
zuk nahi badezu ezkontza hori  
zerratu leiteke errez,  
karikan kara esan zaidazu  
konforme zeran ala ez.

Mitxelena ere tentatzeko zegoen, eta beste hau bota zion bueltan:

**MITXELENA:** Hiri begira, baina ez ditek  
bihotzez egiten farrik,  
hik ez al dakik ez daukakela  
sasoi oneko izarrik.  
Heuri gogoak eman behar tzin  
ez huen galdetu beharrik,  
hoin maitasuna gaur eukiko dek  
pixka batean bakarrik.

**LEXOTI:** Gertatu zait gaur hiru hoiekin  
mahai honetan biltzia,  
Lexoti gizon jatorra dela  
lehen ez al duk aditzia?  
Bate pentsatu-re egin gabe  
ailegatu zait zahartzia,  
baina esan dit hartuko naula  
neria bada etxia.

**MITXELENA:** Holako batek molda dezake  
euneroko potajia,  
gure Lexotik ere ba dauka  
oraindikan korajia,  
berari kentzeagatik zuek  
mutil zaharraren ajia,

neuk pagatuko nituzke boda  
eta bodako trajia

**LEXOTI:** Aizu neskatxa zuk nahi badezu  
egingo degu tratua,  
ni izango naiz beti zurekin  
oso ondo portatua;  
andre bezela egun batean  
izango zaitut hartua,  
hartzen banauzu gizona duzu  
herriko enpleatua.

Eta berriro ere Lexotik kantatzen du hurrengo bertsoa, Arantxari bere eskaintzak eta eskaerak luzatuaz:

**LEXOTI:** Zure atzetik hontaz aurrera  
emango-itut zenbait pauso,  
izango zera gure etxean  
familiako guraso;  
dudarik ez dut gaur hemen jartzen  
formala zerala oso,  
izango zara zu maixtra eta  
ni izango nauzu maiso.

**MITXELENA:** Lexoti honek egiten digu  
gaur bihotzezko nigarra,  
baina, sinistatu ezinikan  
nik egiten diot parra,  
parranderoa izandu dala  
fallu hori du bakarra,  
ezkondutzeko izango du bai  
maixtra on baten beharra.

Mitxelenek parranderoa deitu diolako neska gazte haien aurrean, gozoa jartzen da gure Lexoti, eta bi kantatzen dizkio bat bestearen atzetik.

**LEXOTI:** Horri kontesta emateko-re  
bate ez niok beldurti,  
horrek-e pama ba dauka baina  
txintxotasuna urruti,  
kontseju aluak neri ematen  
gizon hau ari da beti,  
Joxakin honen aldean jator  
dabil gaur ere Lexoti.

**LEXOTI:** Mitxelenak gaurkoan bertsotan  
grazirik ez dauka bate,  
ni neskekin nagoela eta  
berak egin nahi dit kalte;  
gaizki esaka ari delako  
ba det miloi bat suerte,  
i xil ixilik egon hai motel  
hizketan ikasi arte.

Lexoti gero eta beroago zegoen eta izan ere ez zen harritzekoa. Egun horretan ba zeukan berogarririk aukeran. Batetik bazkaria, bestetik Mitxelenaren tiroak eta neska gaztez inguratua gainera...

Gauzak horrela, azkenean behintzat Lexotiri hor joaten zaio eskua eta ikuitu txikiren bat egiten dio andereño bati.

Baita Mitxelenak azkar asko eraso ere:

**MITXELENA:** Lexoti jarri zaigu  
neskatxekin minez,  
eskuak geldirikan  
eduki ezinez,  
ez zaitezte izutu  
hain kolpe zikinez,  
asko ikuitu baina  
ezertxo egin ez.

**LEXOTI:** Lexoti hemen ai dek  
neskekin lanian,  
ikuitzea tokatu  
zait derrigorrian;  
ta hiri hauxe negok  
esan beharrian:  
Aukera hau ez huen  
sasoi huenian.

Handik berrogei bertsoara, edo Lexotik andrea hartzezkotan ere kategori handikoa nahi duela dio. Eta Mitxelenak hara zer nolako bertsoa kantatzen dion:

**MITXELENA:** Orain esan dituenak  
astakeri nabarmenak,  
zirikote bat sartuko dio  
orain Mitxelenak:  
Honek nahi ttun gradu denak  
kategoria dutenak;  
berdin pentsatu ezingo dik hi  
hartu behar hauenak.

**LEXOTI:** 1.- Mitxelena in da puztu,  
ez daki nola jolastu,  
sekulan gizon egin gabea  
gaur-e aldrebestu;  
hemen dabil justu justu,  
egingo nitek apostu:  
Bere lanean kategoririk  
honek bate eztu.

2.- Hitzegiten duk alperrik,  
nahiz ta ez egin okerrik  
ta Joxe Joakin ez huen motel  
hoi esan beharrik;  
kantatzen duk bertso txarrik,  
bate ez daukak indarrik,  
motel pixka bat luzitutzen dek  
etxean bakarrik.

Beste bertso batetan, Mitxelenak diruarengatik galdetzen dio. Haietako batekin ezkontzekotan dirua ere beharko zuela alegia. Oraingoan ere Lexotik ez du gabe dagoenik esango:

**LEXOTI:** Ni ez ninduen txit aberatsa

mundu honetara jaio,  
lanean gero berrenderotzan  
egin dit hamaika saio;  
gastu handirik berriz ez diat  
motel izan oraindaino:  
milo batzuek bankun ba zeuzkat  
hik ez dek pentsatzen baino.

Mitxelenak esaten dio beste batean, ezkontzeak ere bere alde txarrak ba dituela, eta horietako bat andrearen mende egon beharra.

**Lexotiren erantzuna:** Ez naiz egongo flakian  
esango dut bertso finan,  
gezurrik bate-re esan gabe  
aiko naiz egian;  
ez duk hire pikardian,  
bertsotako etorrian,  
andrian mende bizi hintzela  
lehen-e banekian.

## V - LAGUNAK MINTZO

Liburuxka honen azken atal honetan, Lexotiren zenbait lagun dakargu bakoitza bere bertsoak aurrean dituela. Eta bere «zenbait» lagun diogu, izan ere bere lagun bertsolari guztientzat ez bait genuen lekurik. Nolanahi ere eta muestra bezala, dakartzagun hauek Lexotiren eta irakurlearen gustoko gertatuko direlakoan gaude. Hori litzateke behintzat gure asmo eta nahi bakarra, eta ez inolako selekzioa egitea.

### MITXELENA

Mitxelenak, izan zuen aukera azken urte honetan Lexotiri bertso pare bat kantatzeko.

Aduriz Sagardotegian izan zen, 1988ko Bertso Astearen barruan. Kaxkak honela jarri zion gaia: «Euskal Herrian urtero bertsolari bat omentzen da. Datorren urterako ere aukeraketa egina dago, eta Mitxelenak ba daki bertsolari hori nor den. Bi bertso bertsolari horri».

- 1.- Lexoti da gizon hoi  
ez dago auzuan,  
baina bilatu leike  
lehenengo pausuan.  
Pixkat gaixotu zan ta  
arrebana jo zuan,  
bizitzeko laguntza  
izango bazuan;  
zein dan aitortutzen det  
lehenengo bertsuan.
- 2.- Hurrengo urterako  
zioten deitu  
Lexotirentzat ziren  
nonbait errukitu;  
pentsatu zutena-etzait  
gaizki iruditu  
hark ere bertsoetan  
lana egin baitu,  
eskaintzen zaizkionak

mereziak ditu.

## JOXE AGIRRE

Joxe Agirrek ere Lexotirekin egon nahi izan du bere omenaldi inguruko ekintza guztietan, eta hara zer nolako bertsoak idatzi dituen ospakizun hauek direla eta. Lexotiren gustokoak ez ezik, bertsozale irakurlearentzat ere atseginak izango diren itxaropenean, hor doa bertso sorta osoa:

- 1.- Lexoti omentzeko  
aukeratutzian  
poz haundia sentitu  
nuen bihotzian;  
bertsotan ibilia  
Euskadi guzian  
zorretan bizi ginen  
hau egin ezian,  
irabazita zeukan  
nere iritzian.
- 2.- Aspalditxotik hasi  
bai ginen esaten  
eta erabaki zan  
horrelako baten,  
ez da xamurra danen  
gustoa egiten  
baina herrian nola  
estimatzen duten  
bertsozale gehienak  
poz hartuko zuten.
- 3.- Oiartzunen sarritan  
ibilia gera,  
herri horretan bada  
bertsolai aukera  
zein liteken onena  
ez noa esatera,  
baina Lexotin aurka  
hitzik ez atera,  
ez dakit maiteena  
ez ote den bera.
4. - Bertsolari bezala  
pentsatzen egonik  
ezin daiteke esan  
ezereza denik,  
arrazoi zorrotzikan  
badigu emanik,  
berengandik pasarak  
hartuak ditut nik,  
baina ez uste izan  
maite ez dedanik.
5. - Bizitzan izangoitu  
bereak pasiak  
probatuko zituen  
gozo ta gaziak  
berak disimulatzen

jakin du guziak  
beti atera aldi  
alai bereziak  
gogoan hartutzea  
ondo mereziak

6. - Lexotin izakera  
hain da ezaguna:  
tristearen etsaia  
alaien laguna  
Nahiz urtietan egon  
zerbait gora juna  
gorputza zahartzen baina  
bihotz gazteduna  
dohain eder hori da  
askok ez duguna.

7. - Tankera berdintsuan  
ikusi dut beti  
aurpegi tristeakin  
inoiz ez dut sentí,  
farra eragiten bai  
makinatxo batí  
hargatik da askoren  
bihotzeko zati  
luzaro horrelaxe  
jarraitu Lexoti.

## KOXME LIZASO

1. - Lexoti det nik lagun argi bat  
joan dan berrogei urtean.  
Gu ezagutu ginan orduan  
sagortegi batean.  
Hura sasoiko mutila zan ta  
ni berriz haur bat artean;  
ai zer arratxa pasa genduen  
gure zardin zahar jatean.

2.- Zardin zaharretik gazitu zan ta  
indartsu jarri mutila,  
harri jasotzen ariko zala  
eta kontrario bila,  
zilindro edo rektangularra  
koadro edo borobila,  
-Zortzi arroan jokatzekotan  
nereganatu dadila-

3. - Zenbat holako umore giro  
eman dizkigu geroztik.  
Garai haietan itzaitza lanak  
egiten zitun basotik,  
bi idi iztar-ihar zituen  
haien ile denak zutik,  
indar askorik ez zeukatela  
ezagun zuten pausotik.

4. - Bertsotan ere ibilia da,  
danak daukagu goguan,  
zelebrekeriz zeinek hitzegin  
era egokiaguan.  
Zuri gorriak ikusi eta  
orain arreban onduan.  
Diruz gainezka bizi dana da  
Konde zahar baten moduan.

Ondorengo hau Txomin Garmendiarena duzue:

### "LAGUN ZARRARI BIOTZEZ"

« 1989'ko Bertsolari-Egunean Lexoti oartzuarra omendu bear dala-eta, liburu bat argitaratu nai dutela berari buruz ta zerbait idatziko ote nukean galdetu zidaten ortaz arduradun diranak. Lexoti'rekin artu-eman geienak izan ditugun bertsolari danok komeni da zerbait egitea, ta ortara nijoa.

Lexoti'k len ere badu liburu bat bere izenarekin, *Auspoa*'ren 157'garrena ain zuzen, da bere itzaurrean Xabier Lete'k naikoa as-tintzen du Jose Luis Lekuona *Lexoti*'ren nortasuna ta bizitza. Liburua, berriz, Lexoti'ren gertakariz ta bertsoz osatua dago. Beraz, liburu ortan datorrenik ez nuke geiegi berritu nahi.

1953'garrena zan. Taberna-zulotan da lagun artean asia nintzan bertsotan. Ondarrabi'ko sailletan dagon Gaintzurizketa'n bagendun izeba bat basarri-tabernarekin. Oraindik bizi da gure izeba ori. Etxea bota zuten kamioa zabaltzearren».

Izeba-lengusu oien etxean egun batzuk pasa genitun Berrobi'ko beste lengusu batek eta biok. Ango illuntzetako lagun-artetik entzun nun lenengo Lexoti bertsolaria nota zan da abar. Inguru artan naiko sona bazun. Iñork etzun esango bertsolari ona zanik. Bere zelebrekeriengatik edo bere arlotetasunez zan pamatua, ordurako ere, Lexoti.

Lexoti ezagutzeko gogoia sortu zitzaidan. Baiña 1959'ko Agiña'ko txapelketara arte ez nun egokierarik izan.

Esandako urte ortan, Usurbil'ko Agiña'n Gipuzkoa-ko Luistarrentzat bertsolari-txapelketa jarri zuten, San Luis egunean ain zuzen. Garai artan indar zuten edo indar gendun Luistar ta Mariaren Alabak. Ezkondu arte, Luistar edo Mariaren Alaba izango zan. Bein ezkonduko ezkeru galtzen zan titulu ori.

Ogei bertsolaritik gora bildu giñan Agiña'n, Lexoti tarteko gendula. Lexoti txapelketatan-da asko ibilia zegola eta bertsolari batzuk kejavu egin ziran. Goiz-partetik kantatu zun, baiña arratsaldetik etzioten utzi antolatzaileak. Min zun Lexoti gizarajoak. Baiña erabakia artua zegon.

Nere iritiz, antolatzaileen erabakia etzan izan zuzena. Lexoti luistarra izango zan, da gipuzkoarra; ta ori naikoa zan Agiña'rako. Adibidez: tartean bazan ezkondu bat; ta ura lexoti bezin pamatua etzalako, konporme gelditu giñan.

Gaurko bertsolari danetatik zerbait berezi badu Lexotik. Askatasuna geiena otsegiten duten bertsolariak agian daude lotuena. Lexoti'k ez du sekulan askatasunik kantatu. Baiña bera bezin aske bizitutako bertsolaririk ez det ezagutu.

Lantoki batera ez da sekulan lotu. Andre batengana ez da sekulan lotu. Bertsoetako irabaziak gastatu arte kezka gutxi. Ogirik etzunean, taloa jan da konporme. Biak palta zitunean, baso-lanik txarrenetara ere bai lanera, eguneroko gertakizunak sortu arazten zizkion ipuiakin jendeari par egiñaraziz.

Gure basarri zarraren inguruan ere jardun zan baso-lanean. Basorako girorik etzan batean, gure sukalde zarrean suaren ondoan an aurkitu nitun gure aita zana ta biak. Suaren gaiñean zegon eltzea bapo erre zitzaioten. Bertso ta ipuiez izango zuten naiko lan noski.

Badakigu punta-puntako bertsolaria ez dala izan. Badakigu jakintsua ez dala izan. Baiña izan du alako konpormidazeko grazi bat, askori palta zaiguna. Argatik bizitu da «egun batean pobre, besteetan fauna».

Ara, Lexoti egun aundia  
bidean badatorkizu,  
zure lagunik maitatuenak

inguratuko zaizkizu.  
Lagun arteko par-eragille  
izandu zera beti zu.  
Danon Jabea zeñen ona dan  
zuk ere ondo dakizu,  
zartzaro on bat izan dezazun  
laguntza egingo al dizu!

#### «Txomin Garmendia»

Bere lagun oiartzuar **Marzelino Manterolak** honoko hau dio:

«Nik Lexoti gehienbat bertsolari bezela ezagutu nuen. Leku askotan egon izan naiz Lexotiren bertsoak entzuten, eta garbi aitortzen dut bertsolari zorrotz eta adarjotzaile izugarria dela, pentsatutakoa azkar botatzen duena.

Ez du lotsak eta beldurrak menderatuko. Lehenengo aldiz Errenteriako taberna batetan entzun nuen bertsotan. Orduan oso gaztea nintzen eta ez nuen gehiegi ezagutzen. Haren bertso iturriak harriturik utzi ninduen. Kasu hartan, beste hainbat lekutan bezala, Joxe Joakin Mitxelena zuen lagun edo kontrario. Azkar igerrri nion ziri sartzaile gogorra zela. Geroztik zenbatetan entzun ote dut?

Kantatu behar zuenean, haren lehenengo bertsoa berdintsua izaten zen gehienetan. Honoko hau gutxi gora behera:

Hemen kantari hastera goaz  
hegal gabeko kukuak,  
eta sarritan ez dira izaten  
gu geran bezelakuak;  
ea pozikan uzten ditugun  
honuntz etorritakuak,  
lehendabiziko nere partetik  
arratsalde on Jainkuak.

Hori aurrenekoa, eta hortik aurrera, mingainera zetorkion guztia.

Urte batetan, Errenteriako Goiko Kaleko San Agustín Festetan, «Xamalbide» bertsolari ezaguna eta biak ari ziren bertsotan. Orduan ere ba zebilkiten hizkuntza ederrik, eta era honetan bukatu zuen behintzat Lexotik bere azken bertsoa:

...  
baldin norbaitek galdetzen badu:  
- Non ote dabil Lexoti?  
Esaiozue: -Bertsotan ai duk  
Errentiko txoro batí.

Bere oilarrekin ere eman zuen egundoko bolara festarik festa. Berak zioenez, hiru ollar zituen:

- Bat, Europan zen onena.
- Bestea, munduan zen onena.
- Eta hirugarrena beste biak baino hobea.

Galga horretakoak izaten ziren Lexotiren ateraldi gehienak.

Gaur egun, lan horiek denak erabat utzita bizi bada ere, Euskal Herriak ez dauka ahaztuta Lexoti.

Lexotirentzat berdintsu dira  
lagunak eta arrotzak,  
trabarik inoiz ez dio egin  
bere aurpegian lotsak,  
mingainean-e ez du ilerik

bai ateraldi zorrotzak,  
kontrarioik gogorrenari  
azkar erakutsi hortzak.

Festa, elkarte edo tabernan  
umore onean beti,  
algara franko egin arazi  
diozu makina bati;  
ondo merezi zendun omena  
oraintxe ez da urruti;  
eutsi goiari al den moduan  
ta zorionak Lexoti.

Patxi Etxeberriarenak:

- 1.- Agurtzen zaitut lagun zahar maite  
bihotzaren erdiz erdi,  
era berean nahi nizuke nik  
besarkada bat bidali.  
Pozikan gaude zure argia  
ez baita dena itzali;  
kontura zaitez Lexoti maite  
zurekin dago Euskadi,  
eta ordaina eman nahi dio  
zuk egin duzun lanari.
- 2.- Lexotirentzat omenaldia  
izendatu zutenian  
xomorro batek jira-bira bat  
egin zidan barrenian;  
pentsatu nuen: Guk ere horren  
atzetik behar genian,  
baina pozikan hartzen du batek  
aukera datorrenian,  
eta Joxe Luix barka zaiguzu  
Jainkuaren izenian.
- 3.- Bertsolaritza sartu zitzaizun  
zure barneko zentzuan  
garai batean zure buruak  
nagitasunik etzuan;  
arrazoi latzak izaten ziren  
zuk botatako bertsuan,  
gogoan daukat zer trebetasun  
zurekin izan dezuan  
ta Oiartzunek ere bazekin  
bere seme bat non zuan.
- 4.- Gazte denbora igaro zendun  
bertsolaritza lanean,  
hamaika bertso bota zenuen  
sasoia zenduenean,  
behar zan gisan mintzatzen zinan  
txarrean eta onean,  
aurrera xamar ibiltzen zinan  
beti edo gehienean,  
ziri ederrak sartu ere bai

usterik gutxienean.

- 5.- Garai batean herririk herri egiten zendun irrintzi ezin esango dugu bertsotan egin dezunik lan gutxi; Jainkoak daki zenbat herri ta menditan zinen iritsi, orduan atek iriki ziran oraindik ez dira itxi eta Herriak esku hutsikan ere ezin zaitu utzi.
- 6.- Zure bertsuak Euskal Herrian eman du zenbait etekin bidea errez bilatzen baita holako izar batekin, gazte denboran gu oso pozik ibiltzen ginen zurekin eta zu berriz aita bezela portatzen zinen gurekin eskerrik asko Jose Luix eta amaitutzen det honekin.

## MARIANO OSTOLAIZ

Marianok ere Lexotirekin egon nahi izan du omenaldi giroko egun gozo hauetan, eta ondoren doazen bertsoak bereak dira:

- 1.- Lagun ona izanik tiki ttikitandik, umetako kontuak gogoan oraindik, beti irriparrean denbora joanik, bihotz zabalekoa umorik iraun dik; zenbat bertso entzunak Lexotirengandik?
- 2.- Lexoti omentzeko ba dator eguna, orain Euskal Herriak eskaintzen dizuna, zorionak Lexoti merezi zenduna, herri guziak maite izandu zaituna. Hau da zu eskertzeko egingo deguna.

## AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| <i>Bertsolari Eguna 1.969-88</i> ..... | 7  |
| <i>Lexoti - Biografiaz</i> .....       | 33 |
| - <i>Bertsolaria</i> .....             | 41 |
| - <i>Zenbait pasadizu</i> .....        | 51 |

|                          |    |
|--------------------------|----|
| - Azken bertso saioak -/ | 63 |
| - //                     | 75 |
| - Lagunak mintzo         | 85 |